


EUSKARA

URTARRILA OTSAILA MARTXOA 2020



AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO

Bilbao

ARTE BIZIAK / MUSIKA ESPERIMENTALA / ERAKUSKETA-
SOINU INTERBENTZIOA **MAR. 2 > 22** (astl. > iga.)

Sandra Cuesta

Lo adherente y el fuego

Hotsetan. Musika Esperimentaleko eta Soinu-Arteko Programa



Sandra Cuesta artistak Azkuna Zentroan aurkeztuko duen *Lo adherente y el fuego* interbentzioan, Lantegia 1eko soinutik eta aretoak dituen erresonantzia-aukeretatik abiatuta, espazioan biziko da, soinuen eduki-ontzi gisa, dauden iturri ugariak anplifikatzeko.

Gailuko espazio-egituran esku hartzen duten formak artikulatuz, artistak erakusketa muntatzeko lanetan sortutako barrunbe baten espazioa aldatuko du, soinua ateraraziko dio.

Artistaren arabera, pieza «kantuen zerrenda bat da, eta beste gauza baten aukera izateko bide ematen duten objektuetatik abiatuz eginda dago. Haren forma ez da osatuko, ezin izango dugu deszifratu, baina kanta bakoitzak zerbaitez ohartaraziko du. Honelako kantuenak: *era la noche (gaua zen)*, *metálica información (metalezko informazioa)*, *mensajes al cuello (mezuak lepoan)*, *adiós (agur)*, nola-halako sentsazioa sorraraz dezakete, hari-mutur guztiak lotzekoa, hor zegoen soinuari eusten dioten bolumen leunen eta soinu-anplifikadoreen bidez».

////////////////////////////////////

Martxoak 2 > 22
Astelehena > Igandea

16:30-20:30h
Lantegia 2

Sarrera dohainik

////////////////////////////////////

 [@sandracuestaaizkorbe](https://www.instagram.com/sandracuestaaizkorbe)

////////////////////////////////////

SANDRA CUESTA

Eskultura du abiaburu praktika artistikoan, objektuak eta egoerak ekoizteko ikuspuntu gisa. Soinuarekin zerikusia duten hainbat ingurunetan aurkeztu du lana: Zarata Fest, Le Club Larraxkito, Ertz, Mugatxoan-en Emisión 0. Besteak beste, leku hauetan erakutsi ditu lanak: Baionako Didam museoa, Corkeko

The Guesthouse, Horizons Sonores, Ecuries de Baroja, Anglet eta Bilboko Okela. Orain dela gutxi, Alkolea Beach proiektuko parte izan da –erakusketako eta ikaskuntza esperimentalerako espazio bat–; horrez gain, Sácale la Miel programa zuzendu du Dabadaba kontzertu-aretoan (Donostia).

////////////////////////////////////

Sandra Cuestaren saioa **Hotsetan** programaren barruan sartuta dago, hau da, hurbileko eta nazioarteko artisten soinu-lana ezagutzera emateko Azkuna Zentroak duen **Musika Esperimentaleko Programan**.